



ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki
Wilhelm von Humboldt eta
Euskal Herria

Bilbo: Universidad del País Vasco /
 Euskal Herriko Unibertsitatea,
 Argitaipen Zerbitzua, 2017.
 343 or.; 23 cm (Filosofía ; 10)
 ISBN: 978-84-9082-765-9

Gurean aski ezagunak diren Humboldt anaiei buruz liburu esanguratsu bi argitaratu ziren 2017an. Batetik, Andrea Wulf irakaslearen *The Invention of Nature* (2015) gaztelaniaz jendarteratu zuen Taurus argitaletxeak. Alexander von Humboldt naturalista eta geografoaren bizitzaren irudi zehatz eta interesgarria da berau eta, publiko zabal bati zuzendua, oraingo testuinguruan kokatzen dira esploratzaile prusiarraren ikerkuntzak. Gaur egungo begiradatik, Wulfi bereziki azpimarragarria iruditzen zaio Humboldtkek zeukan naturaren ikusmoldea, nola irudikatzen zuen sare baten gisara. Ahula eta sentikorra izanik, tiratzen baldin badiogu hari bati, sare osoa desegiteko arriskua dugu. Humboldt halako ondorioetara iritsi zen Venezuelako kolonietan deforestazioak zeukan eragin kaltegarria ulertu zuenean. Basoak kentzean, lurra antzu geratzen zen; landaredia erauztean, alboko mendietako lurrak babesik gabe geratu eta euriteek narriadura izugarria eragiten zuten. Humboldtkek ongi ulertu zuen basoak atmosferarekin duen erlazioa, ura mantendu eta higadura saihesteko duen garrantzia.

Humboldt gazteena, bestalde, ospetsua da XIX. mendean koloniak esploratzeko erabiltzen zen eskulan esklaboa salatu zuelako eta amerikar herrialdeen emantzipazioan erreferente garrantzitsua izan zelako. Amerikar iritsi berriei ezagutzera eman zien euren kontinentea, eta aspaldiko amerikarrei, berriz, duintasuna eman zien, barbaro kulturaga-beak ez zirela defendaturik. Humboldten lanen eragina sumatzen da Thomas Jeffersonen politikan, Charles Darwinek idatzitako ezagutzak hedatzeko zeukan estiloan, William Wordsworth eta Samuel Taylor Coleridgen poemetan ageri den naturaren irudian, edo Simón Bolívarren mugimendu askatzailean. Bere jaiotzaren ehungarren urtemugan, 1869an, ospakizun jendetsuak egin ziren Europan, Afrikan, Ozeanian eta, batez ere, Ameriketan. Ulysses Grant lehendakariak, adibidez, Pittsburgh hiria geldiarazi zuen 10.000 pertsonako jaiaren parte hartu zuen. New Yorken kaleak banderaz josi zituzten, udaletxea pankartzaz bete eta eraikin ugari Humboldtren irudiaz estali zituzten. Central Parken 25.000 pertsona elkartu ziren hitzaldiak entzun eta Humboldtren brontzezko busto gomutagarri baten inaugurazioa ikusteko (Wulf, 2017: 28-29). Ehun urte geroago, gizakia Ilargira iritsi zelarik, prusiarraren jaiotzaren urtemuga zeharo ahanztuta geratu zen.

Wulfen biografia ederra irakurtzerakoan, euskaldun bati atentzioa ematen dio kontaketan ez direla aipatu ere egiten garaiko gure herritar unibertsalenetako batzuk, Alexandrerekin harreman zuzena izan zutenak. Badirudi Wulfek, ekosistema batean ematen den interkonexioa eta elkarrekiko dependentzia Humboldtren ikaskizun nagusitzat jotzen duen arren, ondoren geuri gure txikitasunean garrantzitsuak iruditzen zaizkigun halako xehetasun biografikoak ezdeustzat jo dituela. Liburuko argazki baten oinean irakurriko dugu, “Dos páginas del pasaporte español de Humboldt, con firmas de varios administradores de diversas colonias”; argazkian agertzen den dokumentuaren buruan, oster, “Don Mariano Luis de Urquijo, Caballero Pensionista de la Real y distinguida Orden Española de Carlos III y de la Malta, del Consejo de Estado de S. M., su Embaxador Extraordinario y Plenipotenciario nombrado cerca de la República Bátava, y Encargado interinamente del Despacho de la primera Secretaría de Estado, etc.” (*ibidem*: 74). Mariano Luis de Urquijo bilbotar afrantze-

satua izan zen Alexanderri 1798an Espainiaren kontrolpean ziren lurraldeak ezagutzeko baimena eman zion pertsona, aurretik huts egin baitzioten Hego Polara bidaiatzeko edo Napoleonen gudarosteei Egiptora laguntzeko planek. Alexander, hortaz, bere bilbotar adinkideari esker abiatu zen 1799an Ameriketara eta han topatuko zituen Elhuyar anaiak, Mexikon bata, egungo Colombian bestea. Urte berean bidaiatu zen Euskal Herrira lehendabiziko aldiz Wilhelm anaia zaharena, eta orduan hasiko zuen gure herriarekin harreman oparoa.

Humboldt nagusia, pentsalari, politikari eta hizkuntzalaria izan zen. Prusiako enbaxadore izendatu zuten eta, hezkuntza ministro gisa, Berlingo unibertsitatea sortu zuen; hala ere, bere obrek ez dute nazioartean eragin anaia gazteenaren oihartzuna. Esan genezake orokorrean interes handiena piztu dutela hizkuntzalaritzarekin harremana duten lanek. Wilhelm ospetsua da, batez ere, hizkuntzak pentsamendua bideratu eta moldatzen duen teoriaren sortzaileetakoa kontsideratu izan dutelako, Hamann edo Herderrekin batera. Humboldten antropologia lanetan hizkuntzak hartu zuen garrantzian mugari bat izan ziren 1799an eta 1801ean Euskal Herrira eginiko bidaiak; orduan hasi zen hogeitaz baina gehiago iraungo zuen erlazioa. Wilhelm von Humboldtek gure lurraldearekin izan zuen harreman hori ikertzen du, hain zuzen ere, hemen aztertuko dugun liburua.

UPV/EHuko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko irakasle den Iñaki Zabaleta Gorrotxategik *Wilhelm von Humboldt eta Euskal Herria* lanarekin biribildu egin du aspalditik pentsalari prusiarrarekin hasiriko harreman luze bat, berea ere hogeitaz baina luzeagoa baita dagoeneko. Alemanian 1998an defendaturiko doktorego-tesian jorratu zuen lehenik Humboldten pentsamenduaren eta obraren gaia. *Wilhelm von Humboldts Forschungen über die baskische Nation und Sprache und ihre Bedeutung für seine Anthropologie* deritzan lana, UPV/EHUK 2006an argitara eman zuen jatorrizko bertsiotan. Aldizkari honetan bertan hainbat artikulua argitara eman ditu; agian aipagarriena izan daiteke “Wilhelm von Humboldt: un puente entre dos pueblos / Hizkuntza, hezkuntza, Euskal Herria” izeneko Oñatiko unibertsitateko nazioarteko kongresuan 1995ean izan zuen parte-hartzearen emaitza, Eusko Ikaskuntzak 1996an argitaraturiko monografikoan jasoa. Aipagarriak dira, bestalde, Humboldten inguruan idatzi dituen beste liburu batzuk. Lehenik, Jakinen eskutik argitaraturiko *Wilhelm von Humboldt: hizkuntza eta hezkuntza* (2005) obran aztertzen da prusiarraren antropologia egitasmoa; behinik behin, proiektu horrek duen alderdi formatibo edo humanizatzaileari erreparatzen zaio, nola bilatzen duen gizakiaren ahalmenen garapena. Euskal Herriarekin harremanean hasi ostean, egitasmo hori antropologia linguistikotzat jo dezakegarik, hizkuntzaren izaera formatiboaz arduratuko da gehienbat. Ezin dugu ahantzi Alemaniako mugimendu neohumanistaren ordezkariarik ospetsuena izan zela Humboldt, gizabanakoan oinarritzen den hezkuntzaren teoriaren defendatzaile nagusia agian. Durangoko Arte eta Museoa argitara eman zuen, bigarrenik, Bizkaiko herri horretan apaiz eta Humboldten informatzaile nagusia izan zenari buruzko *Pablo de Astarloa: Wilhelm von Humboldt-en testuetan* (2009). Amaitzeko, aipagarria da halaber Reno-Nevadako Unibertsitateak argitaratu zuen *The Basques and Announcement of a Publication* (2013) lana. Zabaletak sarrera zinez argia egin zien euskaldunentzat adierazgarrienak diren Humboldten lan nagusiei, hau da, Euskal Herrira eginiko bigarren bidaiaren kontaketa eta euskaldunen inguruko monografiaren iragarpenari. Hortaz, 2017an berriki plazaratu duen lan hau ez da hutsetik abiatzen, hainbat espezialitatetan aditu direnen arteko eztabaidetan eta eskoletan doituriko obra da.

Zabaletak aurretik publikatu dituen lanekin alderatuta, esan genezake Humboldten lanaren irudi osoagoa eman nahi dela oraingoan. Prusiarrak bizian argitaraturiko lanez gain, zatikako lan argitaragabeak ere kontuan izan ditu irakasle gipuzkoarrak eta, lan fragmentario horiei lotura antzematea zaila gerta daitekeen arren, Humboldten pentsamendu orokorrekin eta ibilbide intelektualarekin duen lotura argitzea lortu du. Lanak ordenatu, testuinguruan ezarri eta koherentzia eman die. Horrez gain, Humboldten pentsamenduaren eboluzioa aztertu du; beti ere, Euskal Herriak bilakabide horretan izan zuen garrantzia azpimarraturik. Bestetik, oraingo lan honetan oso kontuan hartu dira Humboldtek bere adiskide ilustreei -Goethe, Schiller, Madame de Staël, eta anaia zein emazteari- idatzi zizkien gutu-

nak, bere egunkari pertsonala, edo ikerketen zirriborroak. Garrantzitsuena, beharbada, biografoen iruzkinak eta azken urteotako bigarren mailako literatura ere jaso dira, Humboldtten lana maisutasunez kontestualizatu eta gai jakin batzuen inguruko irudi zehatz eta anitza ematen da lan interesgarri honetan.

Zabaletaren ikerlanaren dohainik nabarmenena izan daiteke aztertzen duen gaiaren inguruko alderdi askotariko irudia ematen duela. Ilustrazio garaiako metafora bat erabiliz, kristalezko prisma konpaktu batetik kolore anitzeko ikuskizun bat sortzen du. Zabaletaren liburuan, ordea, ez ditugu ediren zazpi kolore klasikoak, ezpada bi ataletan banatzen den zortziko taldea. Begirada poliedriko honek diziplina asko besarkatzen ditu, hala nola Filosofia, Antropologia, Didaktika, Historia, Hizkuntzalaritza edo Literatura. Ez dugu hemen zehaztasunez azalduko ataletako bakoitza. Aipatu soilik, Center for Basque Studiesek argitara eman zuen liburuan bezala, liburuak alderdi nagusi bi dituela. Atalak biltzeko erreferentziak dira, bate-tik, Humboldtkek gurera egin zituen bidaiak eta, bestetik, bidaiak horien ondorioz sortu ziren ikerlanak. Banaketa hori, nolana ere, testua egituratzeko modu bat dela esan daiteke; azken finean, atal bakoitzean aurkituko dugu besteetarik zerbait. Atal bakoitza modu autonomoan irakurtzeko pentsatua dago; agian, autonomia horrek eskatzen du pixka bat errepikapenera jotzea eta, liburuak zitu bizian osorik irakurtzera ohituta baldin bagaude, lehenik jaso dugun informazioarekin egingo dugu topo batzuetan. Araoa izan daiteke, ordea, irakurketa patxadatsuagoa egin eta hausnarketari denbora eman beharko geniokeela. Horixe da, izan ere, liburu honek duen beste bertute bat, hausnarketa eta pentsamendua bultzatzeko daukan gaitasuna.

Liburuak iradoki dizkigun zenbait konturi erreparatuko diogu jarraian. Lehenik, xehe-tasun txikerretatik abiatuz, bitxia iruditu zaigu Humboldt aztertu duten ikerlariari egokitzen zaien “interprete” izendapena, printzipioz itzulpengintzaren eremurako egokiago dirudiena. Seguruenik, filosofoaren eginkizuna izan beharko litzateke, termino edo kontzeptuak definitu eta zehaztu bezain beste, jaso ditugun kategoriak zalantzan ipini eta distantzia motz nahiz luzetik behatzea. Testuinguru jakin batean ohikoa ez den termino bat aurkitzen dugunean, formari eta adierei jaramon egingo diegu errazago. Testu baten eta irakurlearen arteko funtzioa aditzera ematen du “interprete” deitura horrek, eta zentzu horretan Zabaleta ere, Humboldtten pentsamendua egituratu eta azaldu digularik, bada itzultzaile. Ikerlan akademikoa beti aberasten dute aztergaia den pertsona baten bizitza, akzioak edo pentsaera modu diferentean ulertu duten ikerlarien ekarpenek, eta Zabaletak bere ekarpenaz gain, beste autoreen iritziak ere bildu ditu. Gehiegi erlatibizatu gabe, eta testuak nahierara irakur daitezkeela defendatu gabe, beti da interesgarria ikustea nola ematen zaien enfasia gai batzuei, elementu edo kontzeptu jakin bat nola jartzen den harremanean beste batzuekin; interpreteen arteko diferentzietatik ikasi eta egunerokoan probetxuzkoak izango zaizkigun ondorioetara iritsiko gara. Zabaletaren lanaren iruzkina egitea egokitu zaion hau ere, hein batean, interprete da zentzu horretan. Baina Zabaleta bada zentzu hertsiaigoan ere itzultzaile, alemanezko testuak euskaratu dizkigulako eta modu horretan gure hizkuntzan paratu delako eta gugana gerturatu beste herri bateko pentsalari baten lana. Ingeleseztik, gaztelaniaztik eta frantseseztik dauden aipamenak bere horretan jatorrizkoan lagatzeak aditzera ematen du esperientziak erakutsi diola gure autoreari euskal irakurleok hizkuntza horiek ezagutu, eta hein batean gure ditugula. Zalantzarik gabe, irakasle gipuzkoarrari eskertu behar diogu elkarguneak topatzeko egin duen zubi-lana.

Aurrekoarekin lotuta, esanguratsua da Zabaletak liburuaren amaieran nazioaren esanahiari buruz egiten duen gogoeta. Azpimarratzen du bere lanaren abiapuntuan ez dagoela asmo akademiko soila, baizik eta nazioaren kontzeptuaren inguruko galdera bat, “euskal nazioa zer den edo nazio zeri dei diezaiokogun” (2017: 310). Galdera horrek badu egunerokotasuna, XIX. mendearen hasieran Euskal Herriak zeukan egoerak gauza askotan baitu egungoarekin antz handia. Liburuaren amaieran planteatzen den galdera horri erantzuteko, argi dago hizkuntzak nazioaren osieran garrantzi handia duela, baina ez genuke ahantzi beharko liburuan zehar aztertzen diren beste elementu ugariak ere, hau da, erakundeek, zuzenbideak, ohiturek, historiak, literaturak, edo lurraldearen izaera orografikoak berak,

baldintzatzen dutela herri baten nazio izaera. Izaera hori aintzat hartu beharko luketen auzoko herriekin dagoen harremanak lain. Egundik begiratuta, deigarria da muga politikoen gainetik garai horretan bazegoela komunitate bat izaera berezi baten sentimendu partekatua zuena. Iruzkingle honen irudiz, nolana ere, garai hartatik hona egoera nahiko aldatu da. Garai hartan irudikaezina izango litzateke Europar Batasuna bezalako egitura bat, modu baketsuan sortua, eta zer esanik ez euskararen alfabetizazioaren hedapena eta,aldi be-rean, euskaldunok gero eta erdara gehiago jakitea, euskalduna ia definizioz baita eleaniz-tun. Garaia egokitzen zaizkion nozioak eta estrategiak garatzea beharrezko dirudi, baina iraganetik beti hartuko ditugu probetxuzko ikaskizunak.

Amaitzeko, iradokizun bat. Beharbada, ikusirik Wilhelm von Humboldtten ikerketa an-tropologiko-linguistikoei sumatzen zaien Natur Zientzietako ereduaren eragina, diziplina arteko lan mamitsu honen jarraipen batek beharko luke alderdi horretan sakontzea apur bat gehiago. Egun, mundu akademikoa gero eta gehiago aldentzen ari da beste garai batzue-tako zientziaren edo zientzien ikuspegi humanistatik. Giza Zientzietako sailetan beste arlo ba-tzuetatik datozen aportazioei, ongi etorria eman beharrean, eskuarki injerentzia gisa hartu eta muzin egiten zaie. Arloen arteko bereizketa bortitz horrek seguruenik zientzia aplikatuen hobespenean izan du jatorria. Pentsamendu kritikoa nahiz hausnarketa patxadatsua ez dira baloratzen, ez dutelakoan berehalako etekinik ematen, eta ez dira sustatzen, denon ongi-zateaz dakienarengan konfiantza itsua izan beharko genukeelakoan. Unibertsitatea eta gi-zartea bereizten dituen arrakala ere handitzen ari dela dirudi, unibertsitateak ahantzi duela gizartearen osotasuna. Arazo horiek ikusita, Humboldtarrak eredu ditugu hainbat gauzatan. Garrantzitsuena, elkarrekin ondo konpontzen ziren anaiak ziren. Bazekiten iristen herri xe-hearen mailara. Haien jakin-mina arlo guztietara hedatzen zen, eta, txikien singularitasunaz jabeturik, naturaren barne dagoen gizateria anitz baten ongizatea eta hobekuntza xede zuten. Iradokizun hau ez bedi liburuaren kritika gisa hartu; goraiatu egin behar dugu Iñaki Zaba-leta Gorrotxategiren lan honek egunerokotasuna duen pentsalari bati buruz ematen duen ikuspegi zabala. Elkarguneak sortu eta gogoeta sustatzeko dohain baliotsuak dauzka.

Haritz Monreal Zarraonandia